

## BALIABIDEAK

Gure enpresa funtzionatzeko eta gure bezeroek erraz lor ahal dezaten produktua hainbat baliabide desberdin erabiliko ditugu:

- Baliabide fisikoak: bezeroengana iristeko webgune bat sortuko dugu salmentak egiteko. Horrela, Espainiako edozein lekutako gendea erosi ahal izango du, nahiz eta zenbat eta hurrunago egon, orduan eta garestiagoa izan (ez da izango 5€ baino gehiagoko desberdintasuna). Euskal Herrian ez dira egongo bidalketa gasturik.
- Baliabide intelektualak: gure webguneaz gain, elkarteak eta farmaziak ere salduko dituzte gure produktua. Horrela, errazagoa izango da gendea gure produktua ezagutzea eta salmenta gehiago egitea.
- Finantza baliabideak: Bazkide bakoitzak bankuari kreditu lineal bat eskatuz 1000€-ko kapitala ipiniko du negozioa zabaltzeko. Diru horrekin, aurre egin izango ahal diegu lehenengo gastuei. Aparte, banatzaileari 500€-ko soldata ordainduko diegu hilabetero.

